EUSKARAZ HITZ EGIN NAHI AL DUZU?

(http://dobera.com/artikulua-ikusi.php?id=107)




(http://hernanikokronika.tumblr.com/)





(/m/albistea/argazkiak/47456/barruan/150109txotx.jpg)

Luis Intxauspe, Ainhoa Amundarain, Jon Paña, Igone intxauspe eta Gurutze Amigorena Txotx Batzordekoak.

albistea//TXOTX IREKIERA

# Sagardo berriaz gozatzeko aukera, igandetik

*Igandean irekiko da txotx denboraldia Hernanin. Irekiera ekitaldia 12:30etan izango da Andoni Aizpuru eta Ana Urrutiaren eskutik. Ondoren, bazkaria izango da Itxas-Burun. Txartelak, salgai.*

**HERNANI**
**2015/01/09 00:00 Ostirala**

Txotx irekiera igandean izango da. ETBko Eguraldia saioko lantaldea omenduko dute eta bertan izango dira Andoni Aizpuru eta Ana Urrutia. Atzo prentsaurrekoa eman zuten Txotx Batzordeko ordezkariek eta denboraldiaren nondik norakoak azaldu zituzten. Luis Intxauspe alkateak mezu argia zabaldu zuen: «3-4 hilabete iraungo ditu txotx denboraldiak eta eskuzabalik, gogoz, harrera egingo diegu bixitari guztiei. Gure sagardoa probatzera eta txotx denboraldiaren inguruko ekitaldietan parte hartzera gonbidatzen ditugu denak, baina elkarbizitza arauak errespetatzeko eskatzen dugu».

Hori horrela, hainbat neurri eta zerbitzu indartuko dituzte. Eta aurten, eraso sexisten inguruan lanketa berezia egingo dela azpimarratu zuen alkateak: «Besteak beste, ostalari eta tabernariei formazioa eta informazioa emango zaie, zer egin eta nola jokatu jakiteko». Beste hainbat zerbitzu ere indartuko dira: Udaltzaingoaren zerbitzua, komun publiko gehiago jarri, Ibai-ondon aparkalekua antolatu autobusentzat, autobus zerbitzua jarri sagardotegietara... Autobus ordutegiak tabernetan ere jarriko dituzte.

### Sagardo ona

Igone Intxauspek sagardogileen izenean hitz egin zuen eta sagardo ona egin dutela azaldu zuen: «sagardotegi desberdinak gaude Hernanin: haundiak, txikiak... bakoitzak bere berezitasunak ditu. Baina denak ahalik eta sagardorik onena egiten saiatu gara, sagardozalea gustora atera dadin».

Hernaniko 11 sagardotegik hartuko dute parte irekiera ekitaldian: Alberro, Goiko Lastola,

Gaur Bihar Etzi

15º 7º | 11º 6º | 10º 0º

(http://www.euskalmet.euskadi.net/s07-5853x/eu/meteorologia/meteodat/zona_1.apl?e=8&z=2&dd=0&nombre=Hernani)
(http://www.euskalmet.euskadi.net/s07-5853x/eu/meteorologia/meteodat/zona_1.apl?e=8&z=2&dd=0&nombre=Hernani)Aemet (http://www.aemet.es) eskainitako datuak

HERNANI




(/m/aldizkaria/None/pdf/Urtarrilak%209_internet.pdf)

Urtarrilak 9

Iparragirre, Altzueta, Larre-Gain, Zelaia, Rufino, Otsua-enea, Akarregi, Itxas-Buru eta Olaizola.
Irekiera ekitaldiaren ostean, bazkaria egingo da Itxas-Burun eta txartelak 20 euroan daude eskuragarri, Biterin (08:00-15:00).
Kronikak gehigarri berezia argitaratuko du bihar.

**EGITARAUA**

**11:00** Suziriak eta Apaxi ipuin kontalaria. Udaletxeko arkupean.
**11:00-11:45** Trikitilariak, herriko kaleetan.
**12:00** Kalez kale kantari. Plaza Berritik abiatu eta kalejiran Gudarien plazaraino. Txalapartariak udaletxeko arkupean.
**12:30** Txotx irekiera, plazan.
**14:30** Bazkaria, Itxas-Burun.
**18:30-20:30** Erromeria, Plaza Berrin (eguraldi txarra bada, Atsegindegin).

---

Sartu Tweet 3

**Izena***

**Eposta helbidea***

**Iruzkina***

**Bidali** **Aurreikusi**

Tweets Follow

Urumeako Kronika @KronikaNet 40m
'Exodus' ikusgai dlvr.it/83VgrR

Urumeako Kronika @KronikaNet 1h
Emanaldi berezia bihar, Mohamed profetaren omenez #arrisala dlvr.it/83TyJW

Urumeako Kronika @KronikaNet 2h
21 argazkilariren lanak ikusgai, Biterin #fotoforum dlvr.it/83SQPR

Urumeako Kronika @KronikaNet 2h
Txillida pasealekua irekita, gaurtik #hernani @hernanikoudala #obrak #txillidapasealekua dlvr.it/83SNbP

Urumeako Kronika @KronikaNet 3h
Bi ikastaro antolatu dituzte datorren astean @hernanikoudala #jabetzeeskolak #hernani dlvr.it/83QpLn

Tweet to @KronikaNet

## Azken argazkiak (/argazkiak/)



Inuxente Eguneko laste...


Olentzero


Euskara ari du Hernanin

## Azken bideoak


Iritsi da O gripea (III)


Iritsi da O gripea (II)


Iritsi da O gripea (I)

ARGITARATZAILEA

dobEra EUSKARA ELKARTEA

ZEIN GARA

URUMEAKO kronika

KONTAKTUA

Larramendi kalea 11 - Hernani 20120
*Telefonoa:* 943 33 08 99
*E-maila:* kronika@kronika.net

Santio zeharra 8, Kiroldegia - Astigarraga 20115
*Telefonoa:* 688 660 714
*E-maila:* astigarraga@kronika.net / urumea@kronika.net

LAGUNTZAILEAK

Gipuzkoako Foru Aldundia · Eusko Jaurlaritza Gobierno Vasco · Hernaniko Udala · Astigarragako Udala · Ereñotzuko Auzo Udala · Arantzako udala · Goizuetako udala · DOBERA KRONIKA BAZKIDEAK

Legezko oharra (/albisteak/legeoharra/)/ Mobileko bertsioa (http://m.kronika.net)